

## ***KOSTUEN EGITURAK***

Negozio-eredu bat aurrera ateratzeko bere baitan dakartzan kostu guztiak dira. Kostuen egiturek ondorengo ezaugarriak izan ditzakete:

- Kostu finkoak: berdin mantentzen diren kostuak dira.
- Kostu aldakorak: ekoiztutako produktu edo zerbitzuen kopuruaren arabera aldatzen diren kostuak dira.
- Eskala ekonomiak: produzitutako unitateen kopurua handitzean, kostuen murrizketa lortzen denean.
- Zabalkunde - edo hedadura ekonomikoak: baliabide berdinak erabili daitezke produktu bat baino gehiago egiteko.



Laburbilduz, Enpresa bat aurrera eramateak dakartzan kostu guztien definizioa da. Prozesu guztiek gastu jakin batzuk sortzen dituzte, eta gure enpresak gai izan beharko du gastu horiei aurre egiteko.

Gure kasuan, kostu finkoa pabiloiaren alokairua izango litzateke, adibidez. Kostu aldakorra, aldiz, produktua egiteko behar dugun materiala izango litzateke.

Bestalde, eskala ekonomiak eta zabalkunde edo hedadura ekonomikoak ez du eraginik gure produktuaren ekoizpenarekin.